

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Osteguna, 2011ko abenduaren 1a, VIII. urtea, 2.317. zenbakia, tolosaldea.hitza.info

Euskararen Egunak sustiraiak bota ditu erakundeen eta herritarren agendan

Tolosan Mintzodromoa antolatu dute bihar, Fronton kafetegian; Galtzaundi, udala, Aitzol udal euskaltegia eta ikastetxeak ari dira ekimena bultzatzen

Euskararen Egunarekin batera, abenduaren 3an, Nafarroaren Eguna ospatzen da; Leitzan eta Villabonan ekitaldiak antolatu dituzte bihar eta etzi ◊ 3



L.TERRADILLOS

Euskararen erabilera, udalaren helburu nagusia

Herenegun, osoko bilkuran, Tolosako Udalaren lanerako hizkuntza euskara izango dela dioen adierazpena onartu zuten aho batez ◊ 2



Topaketara zirkoa iritsi zen. I.G.

Haur gorak harremanak sendotzeko elkartu dira

Aransgik urtero antolatzen duen topaketa egin dute Tolosan, festa giroan, zirkoa gai bezala hartuta ◊ 6

→ **Suitzara bidaia txotxongiloen eskutik.** Tolosako Titirijai jaialdiko erakusketa Suitzako txotxongiloekin osatu dute aurtengoan. Herrialde horretan, azken mendeetan, txotxongiloek izan duten bilakaera ikus daiteke Aranburu jauregian. Egunero bisita gidatu bereziak daude, Pierre Alain erakusketaren koordinatzailearen parte hartzearekin. Hainbat eskoletako haurrek ere aukera izaten dute txotxongiloak gertutik ezagutzeko. ◊ 4-5



FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK

Larrea Poligonoa 34 - 1
www.funerariavascongada.com



Gertu...

VILLABONAKO
HILETA ZERBITZUAK
BEILATOKI BULABEA

24 H..

943 694 873

Euskararen Eguneko adierazpen instituzionala aho batez onartu dute

Euskal presoek eskubideen aldeko mozioak sortu zituen eztabaida gehien herengungo plenoan

Itzea Urkizu

Etzi, abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Eguna izango da. Herenegun Tolosako udal-txeko pleno aretoan, adierazpen instituzionala aurkeztu zuen udal gobernuak egun honen harira, eta zenbait eztabaidaren ondoren, adierazpen bateratua aho batez onartua izan zen.

Udal gobernuak, bere adierazpenean, Bitoriano Gandiaga ekarri nahi izan zuen gogora, «erabilitzen ez bada, hil egiten da euskara» aipua erabiliz. Tolosarren %65a euskalduna dela baieztatu zuten, eta era berean, herritarren %86a euskaraz moldatzeko gai dela. Gainera, ikastetxe guztietan D ereduko hezkuntza eskaintzen dute Tolosan; 25 urtetik beherako tolosar guztiak, beraz, euskaraz badakitela nabarmendu nahi izan zuten.

Hala ere, datu positibo hauen parean, kaleko erabilerak Tolosako errealitate linguistikokoaren beste aurpegia erakusten du: tolosarren %46ak hitz egiten du kallean euskaraz. Gauzak horrela, udalak «euskara gure herriko hizkuntza nagusia izatea» du helburu, eta honetarako, euskal hiztunak behar direla azpimarratu zuten. Adierazpen instituzionalaren bitartez, beraz, herritarrei dei egin nahi diete euskaraz aritzeko konpromisoa hartzeko: «Aritzea da gako, zuzentasunari hainbesteko garrantziarik eman gabe».

Udal gobernuak kideek aurkeztutako adierazpenarekin bat etorri zen EAJ-PNVko udal taldea. PSE-EE alderdiko Jose Ignacio Asensiok, ordea, «kontrakoa ez, baina osagarria» den adierazpena proposatu zuen. «Eleaniztasuna babestu nahi» duela esanez: «gure altxorra da». Horretarako, euskara bera babestea ere beharrezkotzat jotzen zuen. Euskal Autonomia Erkidegoan, azken urteotan, esparru honetan aurre-



Ainhoa Etxeberria. HITZA

rapauso handiak eman direla nabarmendu zuen osoko bilkuran, eta «guztion borondatea» eskatu zuten, «euskara eta elebitasuna sendotzeko konpromisoan».

Iñaki Irazabalbeitiak, honen aurrean, Euskararen Eguna izanda, elebitasuna aipatzea egokia ez zela esan zuen. Hala eta guztiz ere, osoko bilkura bost minutuz eten zuten udalbatzako kideek, adierazpen bateratua osatzeko. Horrela beraz, «bizikidetzarako beharrezkoa den eleaniztasuna» adierazpenean txertatuz, Euskararen Eguneko adierazpen instituzionala aho batez onartu zuten zinegotziak.

Presoen eskubideak hizpide

Antzeko zerbait gertatu zen plenoan, udal gobernuak euskal preso eskubideen alde aurkeztu zuen mozioaren harira. Bilduk eta Aralarrek aurkeztutako mozioan, ziklo politiko berria aipatu zuten, eta presoek eskubide politikoak aplikatzea eskatu, «gizar-teak hau eskatzen urte asko daramatzalako». «Munduan zehar egin den bezala, Euskal Herriko presoek auzia ere konpondu behar da», azaldu zuen alkateak. Era berean, herritarrei, «desberdintasun politikoaren gainetik», datorren urtarrilaren 7an Bilbon egingo den manifestaziora joateko deia zabaldu zuten.

Oposizioa ez zen ados agertu honekin, eta EAJ-PNVk mozio alternatiboa aurkeztu zuen, biktima guztien gaia azpimarratuz. Bozketan egin eta gero, oinarritzko mozioa onartu zen, aldeko 9 bozkarerekin, aurkako batekin eta 7 abstentziorekin.

Udaltzainburuaren auzia

EAJ-PNVko taldeak, «udalaren funtzionamenduari kezkaturik» daudela azaldu zuen osoko bilkuran. Besteak beste, «gardentasuna eta partaidetza» udaletxetik kanpo bakarrik gauzatzea leporatu zion Jon Aldazabal jeltzaleak, Ibai Iriarte alkateari. Halaber, udaltzainburuaren karguarekin zer gertatu den ez dakitela esan zuten EAJkoek: «Hau ez da posible».

Udalaren helburua postuak finkatzea dela erantzun zion Ibai Iriartek: «Beti esan izan dugun bezala, postuak finkatu nahi ditugu, eta plazak lehiaketara ateratu». Bide beretik, lehengo udaltzainburuari kontratua pasa den irailaren leian bukatu zitzaioala ere aipatu zuen alkateak: «Administrazioan lan egiten dutenek plaza lortu egin behar dute, inork zuzenean aukeratu gabe».

Kartelak jartzeko panelak

Olatz Peon jeltzaleak, kale garbiketari dagokion ordenantza izan zuen hizpide erregu-galderetan. Besteak beste, ordenantza horretan aipatzen dena ez dela betetzen nabarmendu zuen, kartelak paretetan itsastan direlako; ordenantzan, Tolosako kaleetan zehar kartelentzako 17 panel jartzea aurreikusten da.

Panel horiek jarri nahi dituztela azaldu zuen Iriartek. «baina dirurik ez baldin badago, ezin dira jarri». Bide beretik, «jendeari ezin zaio esan kartelak ez jartzeko, panelak jartzeko aurrekonturik ezan, kartelak orain arteko dinamika berarekin jarraituko dutela nabarmendu zuen: karteleko ekitaldiaren eguna pasatzen denean, kartela kenduko dute».

Zinegotzi berria

Jokin Bildarratzek Tolosako Udaleko zinegotzi postua utzi behar zuela iragarri zuen ikasturte hasieran. Pasa den astearteko bilkuran, aurreko legealdian ere zinegotzi izandako Ainhoa Etxeberria izendatu zuten zinegotzi.

• tolosa@hitza.info

Irudia >



FUTBOLEAN SALOUN

Pasa den asteburuan, Laskorain ikastolako zenbait ikasle Saloun jokatu zen Volkswagen Junior masters txapelketan izan ziren. Euskal Herriko ordezkari gisa joan ziren tolosarrak, eta Kataluniako, Sevillako eta Madrilgo taldeekin lehiatu ziren. Bigarren postua eskuratu zuten, Madrilgo ordezkariaren aurka 3-0 galdu ondoren. HITZA

Irudia >



KOLONBIAKO IPUINAK

Norma Yanitza Valderrama kolonbiarra Samaniego ikastetxean izan da aste honetan. Dantzaterapeuta, dantzaria eta koreografoa da bera, eta Kolonbiako ipuin dantzatuak eskaini zituzten ikasleei, astelehenean eta asteartean. HITZA

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxe adosatua.** Tolosan etxe adosatua salgai: eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, su-

kaldea, bi autorentzako garaia, txokoa, lorategia eta trasteleku ditu. Interesatuek, 678 26 76 57 telefono zenbakira deitu behar dute.

KEY-LAN
Sarrailgintza

Nalarrua erorb. 13 behean - TOLOSA
Mag.: 678 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13

Euskaraz hitz egiteko garaia iritsi da

Tolosan Mintzodromoa ekimena antolatu dute; euskaraz egiteko gunea Fronton kafetegian egongo da, bihar

Asier Imaz

Tolosaldeko eta Leitzaldeko herri gehienetan abenduaren 3ko Euskararen Eguna ospatuko dute, nahiz eta hainbatetan egitaraua ostiralera aurreratu. Nafarroaren Eguna ere hilaren 3an izango da, eta hainbat herritan ez dira honetaz ahaztu. Asteburua, beraz, ekitaldiz beterik iritsi zaigu eskualdeetara.

Mintzodromoa, hilaren 2an

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere ekarpena egin nahi izan du Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, eta lurraldeko zazpi udalen laguntzarekin, *Gipuzkoa Berriketan*. *Guk ere euskaraz* ekimena aurkeztu du; Tolosako udal ordezkaria bertan dela.

Ekimen honen barruan kokatzen da Mintzodromoa, edo euskaraz egiteko gunea. Tolosan,

Fronton kafetegian kokatuko dute, 16:30etik 17:30era, bihar.

Gipuzkoako Foru Aldunditik honela azaldu dituzte Mintzodromoaren nondik norakoak: «Herriarrak toki publiko batean elkartzen dira, eta euskaraz egiten dute gai jakin batzuk hizpide hartuta. Helburua, euskararen erabilera sustatzea, euskara plazara eramatea da. Donostian sortutako ekimena da, eta aurtien, lehen aldiz, Gipuzkoako sei herritan egingo dute».

Tolosan sustatzaile lanetan, udalarekin batera, Galtzaundi, Aitzol udal eskualtegia eta hainbat ikastetxe aritu dira.



Ezkerretik eskuinera: Goizane Alvarez Irungo udal ordezkaria; Nerea Txapartegi Donostiako udal ordezkaria; Mikel Serrano Zumarragako alkatea; Boris Nogales Lasarte-Oriako udal ordezkaria; Inaki Irazabalbeitia, Tolosako Hizkuntza Politikako zinegotzia; Esther Kareaga, Eibarko udal ordezkaria, eta Zigor Etxeberria, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara zuzendaria. HITZA

↓ Euskararen eta Nafarroaren Eguna

ALEGIA

Bihar, abenduak 2.

- 17:00etan: Maite Frankoren eskutik ipuin kontaketa liburutegian, 17:00etan.
- 22:00etan: *Euritan* errezital musikatua. Eneko Aranburu eta Txoan Ormazabalak errezitatutako hitzak, Desordutanek musikatuak.

Etzi, abenduak 3.

- 12:00etan: Hamaiketakoa plazan.
- **Abenduak 4, igandea.**
- Dantzari Txiki Eguna, Sutarri dantza taldearen laguntzaz.

ANOETA

Bihar, abenduak 2.

- 22:00etan: Anoetako Mikela-sagasti auditorioan Birakabareta antzerkia.

Etzi, abenduak 3.

- 16:00etan: Anoetako Gazte Asanbladak bideo emanaldia antolatu du; *Euskal Herrian Euskaraz erakundeak (EHE) 30 urte bete ditu*.
- 17:00etan: Anoetako Gazte Asanbladak mural bat marraztuko du San Juan kalean, Euskararen Eguna gaitzat hartuta.
- **Abenduak 5, astelehena.**
- Anoetako Herri Ikastolan
- 15:00etan: Euskal musikaz girotuko da eguna, eta ikasleek manifestua irakurriko dute.
- 15:15ean: Ikastolako ikasleek hainbat emanaldi egingo dituzte.
- 16:15ean: Uxue Garmendia Realeko jokalariri elkarriketa.

ARESO

Etzi, abenduak 3.

- 11:30ean: Erabilera aintzeko aretoaren inaugurazioa eta hamaiketakoa.
- 12:00etan: Haurrentzako jolasak plazan. Herriko aldizkaria-

ren aurkezpena eta ahozko ondarearen aurkezpen bideoa.

- 14:00etan: Herri bazkaria eta bertsolariak, Pake-Tokin.
- 16:00etan: Haurrentzatzat bideoa eskolako soinketa gelan.
- 17:30ean: Talo tailerra haurrentzatzat.
- 19:00etan: Taloak eta sagardoa plazan, nahi duenarentzat.

BERASTEGI

Etzi, abenduak 3.

- 17:00etan: Haur jolasak eta haurrek euskararen inguruan prestatutako bertsuak abestuko dituzte.
- 18:00etan: Mahai ingurua, *Herriko euskaldun berriak kontu-kontari*.
- Ondoren: Kantu-merienda.
- Egun guztian zehar eskola haurrak euskararen inguruan egindako marrazkiak egongo dira ikusgai aparkaleku azpian.

BERROBI

Etzi, abenduak 3.

- 11:00etan: Euskaraokea eta ume jolasak.
- 14:30ean: Herri bazkaria. Ondoren bertsuak, rantxerak eta txistea.
- 17:00etan: Ahozko tradizioko hainbat ipuin umeentzatzat eskolan.
- 18:00etan: Talo jana herriko talogileen eskutik.
- 22:00etan: Gaztetxean Segoviako ihesa eta Glaukoma sound system taldeen kontzertuak.

IBARRA

Bihar, abenduak 2.

- Uzturpe Ikastolan
- 09:00ak inguruan: Jon Ander eta Imanol Ubeda joango dira.
- 10:30ean: Txokolatada.
- 11:00etan: 3X3 txapelketa. Bi-

tartean, txikienei aurpegiak margotuko dizkiete.

- Arratsaldean: Gela bakoitzak abesti bat kantatuko du.
- Amaieran irakasleak ere elkartuko zaizkie.

IKAZTEGIETA

Bihar, abenduak 2.

- 14:30etik 16:00etara: Herri Eskolako haurrek, herritarrentzatzat prestatu duten jaia egongo dute, eskolan. Liburu trukea ere egongo da.
- 16:00etan: Ipuin kontalaria udaletxeko aretoan. Ondoren, txokolata beroa.
- 21:00etan: Ostatuan Euskal Afaria.

IRURA

Bihar, abenduak 2.

- Goizez: Ikastolak girotze lana egongo du, eta Argitxok ongi etoria egongo dio egunari.
- 15:30ean: Frontoian ikasle, irakasle eta gurasoak elkartzeko dira. Herriar guztiak ere gonbidaturik daude. Bertan, pregoia irakurriko dute, Euskararen Nazioarteko Egunari buruzkoa, eta Jon Magic magoak emanaldia eskainiko du, gaztain jatearen aurretik.
- 16:30ean: Gazte-lekuko gazteentzatzat graffiti ikastaroaren lehen zatia, Euskararen Eguna gaitzat hartuta.
- **Etzi, abenduak 3.**
- 16:00etan: Graffiti ikastaroaren bigarren zatia.

LEITZA

Bihar, abenduak 2.

- 19:00etan: Nafarroaren Egunaren harira, Beñi Agirrerren hitzaldia eta erakusketa. *1512ko konkista eta gure inguruan izandako eragina*. Udaletxeko aretoan.

ORENDAIN

Etzi, abenduak 3.

- 17:30etik 19:30era: Ane Albi-suren eskutik hitzaldi tailerra izango da udaletxean. Euskal jantzi tradizionala azken 100 urte hauetan gaia aztertuko du Albisuk, eta buruko zapiak, gonak, mantalak... nola jazten diren ere erakutsiko du.
- Ondoren: Gaztain jate afaria Eltxoak Elkartearen, kantuekin batera. Izena udaletxean eman behar da, ostiral eguerdia baino lehen.

TOLOSA

Bihar, abenduak 2.

- 15:00etan: EPAn *Mari, euskaldunen jainkosa* hitzaldia Joxe Ramon Zubimendiren eskutik.
- 10:00etan: Mosaikoa, Beotibar frontoian.
- 16:30etik 17:30era: Mintzodromoa, Fronton kafetegian.
- 18:00etan: Mintzodromoari buruzko mahai ingurua, udaletxeko areto nagusian.
- 19:30ean: Galtzaundi euskara elkarteak Eskerrak Zuri sariak banatuko ditu udaletxeko areto nagusian.
- **Etzi, abenduak 3.**
- Goiz goizetik txistorra pintxoak

eta edaria, Trianguloa plazan.

- 11:00etan: Euskararen inguruan hitzaldia, Plaza Berrian.
- 14:00etan: Bazkaria, Plaza Berrian. Ondoren, bertso saioa.
- 17:30ean: Ekitaldia egongo dute Plaza Berrian.
- 18:00etan: Poteoa, Plaza Berriatik hasita.
- 18:00etan: Txokolata jatea Plaza Berrian.
- 20:00etan: Ogitartekoen salmenta, Plaza Berrian.
- 22:00etan: Kontzertuak Plaza Berrian. Ondoren, DJ Argitxoren emanaldia.

VILLABONA

Etzi, abenduak 3.

- Lehen orduan: Udaletxean Nafarroako bandera zintzilikatuko dute.
- 12:00etan: Nafarroako ereserkia joko dute musika eskolako txistulariek.
- Ondoren: Alkateak adierazpen bat irakurriko du. Herriarteari 12:00etan herriko plazara agertzea eskatu diete.
- 17:00etatik 20:00etara: Gaztelekuan taloak egiten ikasiko dute Ametzetako Gazte Talo Egileekin. Ondoren, herriarteari talo horiek dastatzeko aukera edukiko dute bi euroren truke.





Suitzar txotxongiloei so

Aurtengo Titirijai Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdiaren barruan, 'Suitzara leihoa' erakusketa dago Aranburu jauregian

Pierre Alain erakusketaren arduradunarekin bisita gidatu bereziak egiteko aukera dago

Iligo Terradillos Tolosa

Leihoak badu azken urtetakoekin naharmentzeko puntua. Pasa den urtekoa, esaterako, japoniar txotxongiloei bete zen jaurregia. Tradizioari erabat loturik dauden txotxongiloez gozatu ahal izan zuten gerturatu zirenek. Aurtengoa, baina, Europako lurralde batera begira jarri den bezala, ez dute tradizioa ezaugarri nagusirik.

Ian ere, Suitzako txotxongiloen historia ez dugu japoniar txotxongiloen historia bezala. Era berean, txotxongiloen ezaugarriak ezaugarriak gaitzak, hurreko horretako tradizioak, gustuak, ohiturak... agerian geratzen dira. Aurtengo

Egun, nabarmentzekoa da 120 konpainia dituela. Suitzaren tamainako hurrak botom azpinarragarria da txotxongiloen artean dagoen mugimendua.

Aranburuko erakusketan Suitzako bost txotxongilo konpainiak hartzen dute parte. Horieta batak haurrei zuzendutako ikuskinak eskaintzen ditu, eta gainerakoak gazte eta helduei zuzendutakoak. Txotxongilo lanari guztiz forma emateko arduradun izan duteenak Pierre Alain eta Paola Buscari suitzarrak izan dira. Gainera, erakusketa euren bisita-tzeko onakera zabaldu dute. Egun guztietan izango dira bertan, suitzar txotxongiloen inguruko xehetasunak ematen.

Alain berak azaldu duenez, «txotxongiloak xarma, borondate artistikoaren ondorio dira». Hala ere, erakusketa «ortzaile» bakoaren sinale izateko nahiko luketela adierazi du. Bestalde, Titirijai

txotxongiloen munduan duen «garrantzia» eta egiten den lan «obrero» nabarmendu dute suitzarrak.

Askoartakoak
Aniztasuna izan daiteke erakusketaren ezaugarri adierazgarri-tiko bat. Txotxongilo mota guztiek ikus daitezke bertan, baina da eskularru txotxongiloak, hartzioak edota itzalen bideioak. Material dagokionean ere, egurrekoak, kartzeoak, metalak, topatuko ditugu. Pertsonaia ezaugarrietatik hasi eta Pinotxo bezalako klasiakoetara edota Suitzako politikariak irudikatuz eginkortara. Askoartako pertsonaia, sormen eta irudimenezko mundu bizi ematen hasitako irribar daudenak.

♦ **'Suitzara leihoa'**

HAINBAT DATU

- **Egutegia.** Titirijai jaialdiak irauten duen artean egongo da zabalik, hau da, abenduaren 4ra arte. Ostirala arte 17:00etatik 20:00etara, eta larunbata eta igandean 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara bisita daiteke.
- **Bisita gidatuak.** Ohiko bisita gidatuez gain, Pierre Alain Rolle erakusketaren arduradunarekin bisita gidatu bereziak ere izango dira, bihar eta etzi 17:00etan, eta osteburuan 12:00etan eta 17:00etan. Hauak gaitzeleraz izango dira.



Kartoiarekin eginkoak: Pinotxo eta Botadun Katua pertsonaia irudikatzen dituztenak... it



Katamalo edo maskarak oso ohikoak dira Suitzara. Horien inguruko hairbat adibide ageri dira Aranburuko erakusketan... it



Askoartakoak dira txotxongiloak, bai materialari dagokionean, bai eta eran dagokionean. Golan, hari bideioak eta eskularru erakoa... it



Era guztietakoak dira pertsonaia: dibertigarriak, beltzgarriak, hunkigarriak, ezagunak... it

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRAREN GATIK

P-5008

YOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESONARDA
San Esteban auzoa, 14A • 20400 TOLOSA • Tel: 943 650 337 / Fax: 943 652 638 • iklosa@yolosa.peugeot.com

Kontseju Jatorrekoa

Erakusketak
Ospakizunak
Kontsejuaren maha iterrizak
Plan ikusgarriak

1995 OHI BILAT / 1995 TOLOSA



Aransgik Tolosan egindako topaketan, zirkoa gai bezala hartuta, haurrek emanaldiak egin zituzten. I. GARCIA

Bi eta hamar urte arteko haur gorren topaketa egin dute Aransgi elkartearen Tolosako zentroan. Gizartean eta hezkuntzan haur gorrenganako sentsibilizazioa eskatzen dute elkartetik.

Haur gorren arteko harremanak indartuz

Imanol Garcia Tolosa

Gipuzkoako Aransgi elkartearen topaketa egin berri dute Tolosan. Bertan bildu ziren elkartek dituen hiru zentroetako kideak, hau da, Tolosako ez gain, Bergarakoak eta Donostiakoak. Zirkoa gai bezala hartuta, festa egin zuten bi eta hamar urte bitarteko haur gorrek, irakasleek eta gurasoek.

Haur gorren irakasle eta Aransgiko kidea den Bego Balerdik azaldu duenez, «laugarren urtea da topaketa hau egiten dugula. Beti gai bat aukeratzen dugu, eta aurtengoa zirkoa izan da». Haur gorrek eskoletan egoten dira eta noizbehinka elkartzen dira Aransgiko guneetan, «haurren arteko harremanak indartzeko». Balerdi eta beste hainbat irakasle, haur gorrek dauden eskoletara joaten dira, eta beraiekin gela barruan izaten dira. Tarteke, gelatik kanpo ateratzen dira bakarkako prozesuak lantzeko, zeinu hizkuntza, esaterako.

Tolosako Aransgi zentroak haur gorren eskola gisa funtzionatu zuen 1982ra arte. «Urte horretatik aurrera hasi ziren haur gorrek eskoletan integratzen. Orduan integrazio hitza erabiltzen zen», dio Balerdik. «Hasieran ez zen izaten ikastordu guztietarako. Pixkana egun osorako gelditzen hasi ziren, eta egun, ez da integrazio hitza erabiltzen. Haurrak beste ikasle batzuk bezala egoten dira, laguntza bereziak jasoz. Guk ematen dugu laguntza hori, ikaslea eta irakaslearen arteko zubi lanak eginez».

Oztopoak

Halere, haur gorrek oztopoak dituzte eskoletan, Balerdik dioenez: «Normalean eskolak ez dira prestatuta egoten. Aulki gurgildun batean doanak arrantza bat behar duela garbi ikusten duzu. Baina zailagoak dira ikusten haur gor batek egunerokotasunean dituen oztopoak: sarrerako txirrinarra, abisuak, komunikatzeko moduak...». Komunikatzeko arazoak izaten direnean, haur go-

rren irakasleek zubi lanak egiten dituztela dio Balerdik: «Badaude zeinu hizkuntza dakiten irakasleak, eta horrek asko errazten du. Halere, egunerokotasuna gogorra da eta haurrek esfortzu handia egin behar dute informazioa jasotzeko».

Haur gorren artean entzumenaren mailan aldea dagoela zehaztu du Balerdik. «Batzuk badaude audifono batekin nolabait entzumenaren dutenak. Baina kontuz ibili behar dugu gai horrekin: gauza bat da entzutea eta bestea da diskriminatzea. Nahiz eta entzumen maila bat izan, ikasi egin behar dute hizkuntza. Hori da gure lana».

Gizartean eta hezkuntzan haur gorrenganako sentsibilizazioa eskatzen du Balerdik: «Eskoletara joaten garenean, malgutasuna behar dugu: irakasleak gure presentzia normaltasunez hartzea, komunikazioa lantzea... Normalean eskoletan hori gertatzen da, urte asko daramatzagu eta bertan lanean. Kalean zailagoa izaten da beren beharrak asetzea».

Irudia ◊ Zizurkil



ZUBELDIARI, BOSGARRENA

Zizurkilgo Urkamendi elkarteak, urtero bezala, azken Frantziako Tourreko lehen euskaldunari omenaldia egin dio. Aurtengoa, Haimar Zubeldia usurbildarrak jaso du txapela, eta horrekin bost dira eskuratu dituenak. Ekitaldian beste txirindulari batzuk ere omenaldia jaso zuten Urkamendiren partetik. HITZA

‘Birakabareta’ ikuskizunaren emanaldia ikusteko aukera, auditoriumean

Bihar izango da saioa, 22:00etan; ikuskizunean eskualdeko lau taldek parte hartzen dute

I. Garcia Anoeta

Birakabareta ikuskizunaren emanaldia izango da, bihar, 22:00etan, Anoetako auditoriumean. Ikuskizun berezia dela diote ekimenaren bultzatzaileek, helduentzako eta umorezkoa: «Taula gainean lau talde ikus daitetze. Hiru talde antzezlan motzak aurkezten (15 minutu inguru) eta bestea aurkezle paperean eszenak lotzen eta ikuskizuna borbobiltzen».

Ikuskizunean parte hartzen duten taldeak eskualdekoak dira: Suyanema, Tic-Tac, Berastegiko Antzerki Taldea eta Jon Magic.

Larunbatean izan beharrean, asteartean izango da zinema saioa

‘Bi anai’, ‘Mientras duermes’ eta ‘Malabar printzeza’ ikusi ahaliko dira; gaur, ‘Amanecer’ filma, zine forumean

I. Garcia Tolosa

Datorren asteko zubia dela eta, zinema saiorik ez da izango larunbatean, eta horren ordez asteartean izango dira emanaldiak. Hala, igandean, 19:30ean eta 22:00etan, *Bi anai* filma ikusi ahaliko da. Astelehenean, 19:30ean, *Bi anai*, eta 22:30ean, *Mientras duermes*, emango dute. Asteartean, 17:00etan, *Malabar printzeza*, eta 19:30ean eta 22:00ean, *Mientras Duermes*.

Bestalde, gaur zine foruma egongo da, 19:15ean eta 21:45ean. *Amanecer* filma emango dute jatorrizko bertsoan.



Egin HITZAren harpidedun

abenduaren 31 baino lehen, eta jaso

MAHALA ekoizlearen produktu sorta hau

OPARI

Bertako informazioari, bertako produktuak

hitza info

Harremanetarako:
902-82 02 01
harpidetza@hitza.info



Herritarren parte hartzea bultzatzeko etxez etxe pasa dira

Orendaingo Udaleko zinegotziek herritarren iritzia jakin nahi dute; etxez etxe ibili dira informazioa zabaltzen

Eneritz Maiz Orendain

Ekainean hartu zuten udala Bilduko zinegotziek, eta herritarren parte hartzea bultzatu nahi dute. Etxez etxe pasa dira zinegotziak, udalaren inguruko informazioa herritarrei zabaltzeko eta azaltzeko. Era berean, herritarrei beraien ekarpenak egiteko eskatu diete, galdetegi bete araziz.

Maiatzeko hauteskundeetara aurkeztu zirenean, programako ildo nagusietako bat herritarren parte hartzea bultzatzea izan zen.

Gorka Egia alkateak azaldu duenez, guztia, «herriaren oniritziarekin eta herritarren iritzia arabera egin nahi dugu».

Parte hartze prozesua martxan jarri dute. Hiri handietan etxe guztietara iristea zaila da, baina Orendain bezalako herri txikian, etxez etxe proiektuak aurkezteko aukera ikusi dute. Pasa den asteburuan pasa ziren etxe guztietatik. Horretarako, alde aurretik, egin duten herri aldizkaria banatu zuten esku artean dituzten proiektuen berri emanez.

Behin herritarrei proiektuak aurkeztuta, alde batetik, proiektu horiekin ados dauden edo ez galdetzen diete. Bestetik, eta ados egonez gero, proiektu bakoitzari beste proiektuekiko zenbaterainoko lehentasuna ematen dioten zehaztu beharko dute.



Astero elkartzen dira zinegotziak herritarrekin, udaletxean. Prestatu duten galdetegiak betetzea nahi dute. E. MAIZ

Eraikuntza berriaz galdezka
Eraikitzen ari diren eraikuntza berriaren inguruan ere herritarren iritzia ezinbestekoa dute. Irigarritasun baldintzak direla eta, eta Eusko Jaurlaritzak eskatuta, Haur eskola lekuz aldatu behar dute. Beraz, eraikin berriaren beheko solairuan jarriko dute Haur eskola berria.

Goiko zatian berriz, liburutegia eta kultur gunea kokatuko dituzte, baina, lehenengo eta bigarren-go solairuetan zer egin erabaki beharrean daude. Aurreko udal korporazioak erabaki bezala, lehen solairua helduentzako gune izatea egoki ikusten dute. Herritarrek horrela nahiko ez balute,

zein beste erabilera emango lioketen zehaztu beharko lukete.

Bigarren solairuan berriz, eskola kokatu nahiko lukete, Egiak argi utzi du, «gure ametsa herriko haurrak bost urte bitartean herrian geratzea da. Alegiako eskolako lekualdatutako gela izatea nahi dugu».

Auzolana bultzatu nahian

Urtean bitan bada ere, auzolana bultzatu nahi du Orendaingo Udalak. Guztia ez dago diruarekin egin beharrik, eta herria txukundu edota gauzak konpontzeko asmoa dute auzolanean. Honekin, «herri kohesioa» landu nahi dute.

Herriari bizia eman nahi diote, eta kultur ekitaldiei eta ikastaro-ek garrantzia emango diete. Herritarrei proposamenak egitea eskatzen diete. Udal taldeak orain artean egindako lana baloratzeko aukera ere izango dute.

Herritarrek galdetegiak bete zera animatu nahi dituzte, «aldaketa eman beharra dago, eta ahalegina egitea nahi dugu». Hurrengo asteburuan galdetegiak jasoko dituzte. Jarraian, eta urtea bukatu baino lehen, herri batzarra deituko dute. Galdetegi emaitzen berri emateaz gain, hurrengo lau urteetako Agenda 21a aztertu eta berrikotuko dute, eta 2012ko aurrekontua ere landuko dute.

Herritarrek erantzun ona eman diote kultur elejirari

Azaroan izan dira udalak antolatutako ekitaldiak; herritarrek erantzun ona eman diete ekitaldiei

E. Maiz Baliarrain

Azaroan egiten dute Kultur Elejira Baliarrainen. Adinekoen egunarekin hasi zituzten kultur ekitaldiak. Haurrek zirku tailerra izan zuten, eta baita Eriz magoa ere. Babarrun jatea ere egin zuten Arkaizt elkartean.

Martzelino Dorronosoro alka-

tea «gustura» agertu da kultur ekitaldiek izan duten erantzunarekin. Hamaika adineko animatu zirela gogoratu du bazkarira, «etxetik ateratzea kosta egiten zaie batzuei oraindik». Aurretik, Jakoba Rekondoren hitzaldia izan zuten herritarrek, eta «oso gustura egon ziren herritarrek; azkar pasa zitzaigun denbora».

Pasa den larunbatean, berriz, haurren txanda izan zen, eta Zirku tailerra izan zuten. «Haur asko elkartu zen eta oso ondo pasa zuten», adierazi du, Dorronosorok. Txokolate beroa ere banatu zieten guztiei. Herritarrekin batera, kanpoan bizi diren familiako ki-



Bazkarira joan ziren adineko batzuekin, udal ordezkariak. HITZA

deak ere animatu dira kultur ekitaldietan parte hartzera.

Igandeko bazkarian, babarrunak izan zituzten jateko, eta ez zen odolki eta saiheskirik faltatu. Arkaizt elkarteko zuzendaritzakoak prestatu zituzten, eta bazkari «ederra» prestatu zuten. 52 lagun elkartu ziren. Jarraian, hurrentzako pentsatua zegoen Eriz magoa izan zela gogoratu du alkateak, baina, «helduok haurrek baino hobeto pasa genuela uste dut». Zinegotziak berriki dira, eta kultur ekitaldiak antolatzerakoan denbora gainera etorri zitzaizaien. Hala ere, «giro ederra» izan da.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



12°
6°

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	8°
HOTZENA	7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Agenda

HITZALDIAK

- **Alegia.** Udazkenean kultura egitasmoaren barruan, Naba-rralde taldearen eskutik *Gipuzkoaren sorrera* hitzaldia, 19:30ean, kultur etxean.
- **Lizartza.** Kultur astearen barruan, 17:00etan, umeentzako tailerrak izango dira kultur gunean. 20:00etan, *Mongoliako mendietan barrena* proiektzioa Josu Perezen eskutik, kultur gunean.

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Galtzaundik mintzodromoa antolatuta du abenduaren 2rako. Dinamizatzaile nahiz parte hartzaile gisara egon ahal izateko deitu 943 65 50 04 zenbakira edo idatzi *koordinatzailea@galtzaundi.com*.
- **Tolosa.** Egitasmo Ekonomiko Finantzarioaren berri emango

du udal gobernuak, 20:00etan, udaletxeko batzar aretoan.

ANTZERKIA

- **Tolosa.** Titirijai jaialdiaren barruan, kultur etxean, 18:00etan, *Flor de lupin* antzezlan; Topic zentroan, 22:30ean, *Un hueso en la boda*. Aranburu jauregian, *Suitzara leihoa* erakusketa, 17:00etatik 20:00etara.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Urte askoan!

Ikerrek azaroaren 27an 8 urte bete zituen eta Julenek datorren abenduaren 5ean 10 urte beteko ditu. Zorionak etxekoan partetik!

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● **agurrak**

Eskolak elkartu ditu Helsinki eta Alegia



Udal ordezkariak harrera egin zieten irakasle finlandiarrei. E. MAIZ

Hiru irakasle finlandiar Alegian izan dira, aurrera begira bertako eskolarekin elkarlanean aritzeko asmoz

Eneritz Maiz Alegia

Finlandiatik etorri dira hiru irakasle Alegiako ikastetxera. Helsinkiko eskola publikoko hiru irakasle dira, eta Alegiako irakasleekin elkartu dira. Ezaugarri berdintsuak dituzten eskolak dira biak, eta elkar lanean hasi nahi dute.

Herenegun, Alegiako udaletxean harrera egin zieten. Udal ordezkariak, udalak eta eskolak elkarlanerako dituzten proiektuak

zeintzuk diren ere kontaktu zizkien. Genero indarkeriaren aurkako gaia jorratuko dute abenduan bertan. Bestetik, udal funtzionamendua erakutsi nahi diete ikasleei, etorkizuna beraiek direlako, eta udalak zein funtzio dituen ezagutzeko. Agenda 21a ere jorratuko dute. Unai Iraola alkateak, zaborraren gaia azpimarratu nahi izan zuen. Epe laburrean, zaborra gaika biltzeak izango duen garrantzia aipatu zuen, eta eskolak ere ahalegin berezia egin beharko duela azaldu zuen.

Hemengo hezkuntza ezagutu

Alegiako eskolara, bi eskolen artean egingo dituzten proiektuen inguruan hitz egitera etorri dira. Bide batez ingurua ezagutu dute, eta hemengo hezkuntza nolako

den ikusi dute. Ikastetxean hainbat arlotako jendearekin elkartu dira: zientzia, hizkuntzak, musika,...

Hezkuntzako antolaketarekin «harrirituta» geratu dira finlandiarrek, baita, bi urteko haurrak eskolan ikustearekin ere. Finlandian, ikasleak zazpi urterekin hasten dira eskolara joaten. Abaltzisketako eskola ere ezagutu dute, eta bertako ikasleek alde-errei ere erantzun behar izan zieten.

Finlandiak duen hezkuntza ere punta-puntan dago, eta alegiarrek hori ere baliatuko dute eskolan praktikan jartzeko. Hasi berterik ez da egin elkarlana. Proiektu polita eta interesatea dela argitu zuen Alegiako irakasleak, «ez dira proiektu handiak izango, baina aberasgarria izango da».

SHUYANA

EDERGINTZA

ESKAINITZA BEREZIA
Abenduaren 1etik 15era
%20eko deskontua
kosmetiko gutzietan

Eskolapioetako Lorategiak, 3 • 1A
TOLOSA • Tel.: 943 67 54 89

Shuyana kosmetiko denda
TOLOSA • Korreo kalea 1 • Tel.: 943 67 14 68